


22. atala  
**JAIK**

Iurretako dantzei buruzkoak ezagutzen zebiltzala baina, denbora kontua baino ez zen halakoren batean Aritzek, jaiei buruz galdetzea. Dantza jai errituekin lotuta egon izan da beti eta Iurretako jaien eta dantzaren arteko loturaz gehiago jakin nahirik horrela hasi zen mutila:

- *Niri San Migelak gustatzen zaizkit Jone, baina lehenengo egunean, bezperan, modu batera jazten zarete eta gero beste batera...*
- *Bezperakoa azken entsegua da Aritz eta mahozko prakekin edo maila beltzekin egiten dugu, kaleko arropa arruntak irudikatzeko – Azaldu zion Jonek – hurrengo egunetan baina, dantzarako berezko arropak janzten ditugu.*
- *Eta nola egiten duzue taldea osatzeko Jone? Nork zer dantza egin erabakitzeke?*
- *Gaur egun abuztuan edo irail hasieran, taldekoak batu eta guztion artean erabakitzen dugu hori, baina lehen oso bestela egiten zen.*


**ARIKETA:**

- Margotu dantzariaren prakak San Migel bezperako kolorearekin.

- *A bai? Nola egiten zen ba? – Galdetu zuen Aritzek*
- *Orain dela urte batzuk, San Salvador egunaren hurrengo igandean, abuztu hasieran, Txonpolo inguruko zelaira deitzen ziren herritarrak. Han bakoitzak bere gaitasunak erakutsi beharra zuen beste guztien aurrean eta azkenean bandereroak berarekin batera dantzan egingo zuten 7 dantzari onenak hautatzen zituen. Horrela osatzen zen dantzari-dantzarako zortzikotea.*
- *Hautaketa bat egiten zen orduan txonpolon?*
- *Hori da Aritz! – Erantzun zion arrebak – Gero entseguekin hasten ziren eta zortzi horiek izaten ziren San Migeletako saio guztietan dantza egingo zutenak.*
- *Eta hor? Neskek ere bazuten Txonpolora joan eta euren gaitasunak erakusteko aukera?*
- *Ez... - Joneri betozkoa ilundu zitzaion - Garai hartan emakumeak dantzari -dantzan aritzea ez zen begi onez ikusten. Ez dakigu aspaldiko garaietan dantza hau emakumeek ere egiten zuten edo ez, baina orain dela gutxi arte emakumeek ez dugu Iurretan praka zuriak jantzita dantza egiteko aukerarik izan.*
- *Baina orain bai! – Aritz pozik zegoen kontu hura konpontzea lortu zelako behintzat.*
- *Orain bai! – Errepikatu zuen Jonek – Lan handia egin zen hori lortzeko baina 2018. Urtean, Bakixako San Sebastian jaietan, Iurretako dantza taldean, emakumeek dantzari-dantza egin zuten lehen aldiz.*
- *Gora dantzariak!*